



3 UDALBATZARRA

Eztabaida handiko Udalbatzarra

Lasarte-Oriako Udalbatzar kideek hainbat gairi buruz eztabaidatu behar izan zuen astearteko Udalbatzarrean. Besteak beste, herritarren parte-hartzea, udal diru-laguntzen plan estrategikoa, bidegorri sarea edo Buruntzaldeako garapen, promozio ekonomiko eta enplegu batzordea.

4 EBAZPENA

Ez dute onartu Ibon Fernandez Iradiren zigor-etete eskaera

Parisko Zigorren Aplikazio Gorteak Ibon Fernandez Iradi herritarraren zigorra etetearen aurka egin, eta ebatzi du larriki gaixo dagoen euskal presoak (esklerosi anizkoitza dauka; 2013an diagnostikatu zioten) Frantziako Lannemezan espetxean jarraitu beharko duela. Atzo eguerdian eman zuen ebazpenaren berri Bagoaz kolektiboak. Sarek elkarretaratze berezia antolatu zuen Oken-don, erabaki hori salatzeko.



San Tomas azokako talogileen azalpenak jaso zituzten haur eta helduek taloak egiteko. Ederki moldatu ziren guztiak taloari forma ematen,

Talo ikastaro arrakastatsua

San Tomas azoka ospatuko da abenduaren 21ean Okendo plazan

Eguberriak ate joka ditugu. Zortzi egun besterik ez dira geratzen Gabon gaua ospatzeko. Baina aurretik, San Tomas eguna eta azoka ditugu. Hurrengo asteazkenean, asko izango dira taloez eta txistorraz gozatuko dutenak. Asteartean, Amaraun eta Solaskide programetako haur eta helduek haiek egindako taloez gozatu zuten.

Arto-irina eta ura, besterik ez da behar taloaren masa egiteko baina abilezia behar da forma eman edo txapan ez erretzeko. Asteartean Arrieskalleta elkartearen Amaraun Kluba eta Solaskide programetako 170 bat lagun bildu ziren, bi txanda ezberdinetan, taloak egitera.

San Tomas azokako talogileen pausoak jarraituz guztiek taloak nola egin ikasi zuten. Talogileek masa

prestatu eta ikastaroko parte hartzaileek masa zapalduz, taloari forma eman zioten. Haur eta helduek ederki pasa zuten arratsalde masa eta irina artean.

Gainera, amaiera gozoa izan zuten. Taloak txapan egin, txokolatez bete eta dastatu ahal izan baitzituzten.

San Tomas

Ikastaro hau baliagarri izango zaie txikiei Okendo plazan San Tomas egunean antolatu



Talo ikastaroan 170 bat pertsona bildu ziren, 70na txanda bakoitzeko.

den azokan. Izan ere, abenduaren 21ean, besteak beste, Ttakun kultur elkarteak haurrentzako talo tailerra egingo baitu.

Honetaz gain, urtero legez, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, talo, gatzaina eta sagardo postua izango da, baita azokako

izarrek ere, txerria eta txerrikumeak.

Era berean, herriko elkarte edo ikastetxeetako jarritako postuetan txistorra pintxoak edo gozoak izango dira eskuragarri.

Eta giroa borobiltzeko, Ttiriki Ttarrakako eta Xumelako lagunaren doinuez eta erromeriaz gozatu ahal da.

Abenduaren 22an, Gabonetako berezia argitaratuko dugu. Herriko informazio guztia txintxarri.eus atarian

R.P.S. 175/111 G.

%30 DESKONTUA EGUZKITAKO BETAURREKOETAN

RALPH Ray-Ban OAKLEY arnette eta askoz gehiago...

www.multiopicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Neure kabuz



Maider Segurola

Bertan goxo

Pasa den asteko jai egunetako batean Zuberoa aldean egin genuen egunpasa lanaren aitzakian. Besteak beste, Niko Etxartekin genuen zita Atharratzen eta grabazioaren aurreko solasaldian bere eguna zela aipatu zigun. Urtebetze eguna zuela ulertuta zoriondu genuenean izen-egunaz ari zela egin zigun zehaztapena, San Nikolas egunaz hain zuzen ere. Eta gehitu zuen, euren familian sekula ez dutela urtemugarik ospatu eta aldiz, izen-egunez egiten dela besta.

Bada urtebetze eta izen-egunekin Niko Etxarten etxean bezala, heldu gara zer, nola eta non ospatu erabaki beharreko urte-sasoira. Ospatu beharra bera, ia obligazio bihurtu baita honezkero. Eta erabakiko dugu zein berrikuntza jarri aurtengo menuan, non egin oharkabea afariarekin kateatuko den bazkari amaigabea eta zer ospaturik ez dugula pentsatu arren, zer aitzakia topatu kontzientziako kargarik gabe egun hauetako gehiegikeriekin aurrera egiteko.

Gabonek erabakitzeke uzten duten tarte txiki horretan aurten lagunarteko opari ezkutuaren jolasean erronka jarri diogu gure buruari. Erosten dugunak herrian erositako behar du izan. Ez hiriburuan, ez merkatalgunean,... Lasarte-Oria eskuratutakoek bakarrik balioko dute. Gure kontzientzia kontsumista nolabait arintzeko izango da seguruena baina herrikoa herrian geratuko dela jakinda pozik gastatuko dugu dirua. Ia dena erabakita dagoen festa hauetan zerbaiten gaineko kontrola dugunaren sentsazio sendagarriarekin.

Zorion agurrak



Ganix, Luken eta Telmo

Zorionak gure deabrutxoei!! Jarraitu bihurrikeriak egiten beste sei urtez. Muxu super super superpottoloa!



Odei

Zorionak Odei!! Muxu pila bat!! Oso ondo pasa zure urtebete-tzean!!



Maite

Zorionak ama! Senarraren eta semearen partez, muxu handi bat!



Maitane

Nahiago nuke 100 urte baino gehiago biziko bazina eta entzuten etxeko partetik. duzun azken ahotsa Zure eguna ederki nerea izango balitz.



Josu

Zorionak Josugoi!!!! Muxu handi bat bat bazina eta entzuten etxeko partetik. duzun azken ahotsa Zure eguna ederki ospatu genuen.



Libe

Zorionak Sorgiña!!! Dagoeneko 9 urte. Oso ondo pasa eta muxu pila bat familia-ren partetik.



Aitor

Zorionak poxpolin!!!! Ondo pasa zure laugarren urtean. Muxuk pila pila gura-soen partez.



Xuhar eta Haizea

Zorionak etxeko bi fenomenoentzat. Muxu handi bat !



Zuriñe

Zorionak bihotza! Egun ona pasa eta 10 zure zenbaki gogomuxu handi. Maite zaitugu!



Jose Luis

Zorionak! Azkenean zure zenbaki gogokoenera iritsi zara!! Zure lagunaren partetik.



June

Zorionak politta!! Iritsi da zure eguna!! Mila muxu potolo eta maite zaitugu Aita eta Ama.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

• Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko, 663 515 265.

Lan-eskaria

• Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna edo 'externa'. 696 652 161, Piedad.
• Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta

asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048 Doris.

Lan-eskaintza

• Urdaira sagardotegian Txotx garaian,, asteburuetan lan egiteko pertsona bat behar dute sukaldarako. Informazio gehiago 943 372 691/ 619 403 691

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Jon Murillo Beobide, abenduaren 7an.
- Unai Goyaran Garcia, azaroaren 23an.
- Lander Egizabal Vegas, azaroaren 19an.



Heriotzak

- Ascension Betelu Gorostidi, abenduaren 11an, 92 urte zituela.
- Adoracion Marcos Perez, abenduaren 10an, 90 urte zituela.
- Maritxu Urtuzaga Ugarte, abenduaren 8an, 90 urte zituela.
- Jesusa Ibarrola Telletxea, abenduaren 6an, 90 urte zituela.
- Pepi Garmendia Arruti, abenduaren 4an, 82 urte zituela.
- Maritxu Etxabe Zuloaga, abenduaren 4an, 78 urte zituela.
- Juliana Mayoz Beguiristain, abenduaren 3an, 95 urte zituela.
- Jose Manuel Limia Perez, abenduaren 3an, 45 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 16 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 17 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 18 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 19 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 20 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 21 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Urrutia, Etxeberri auzoa I
Hernani, Tel.: 943 557738

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizaguirre,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Herritarrek proiektuak aukeratzeko aukera

Garapen lokal, promozio ekonomiko eta enplegu arloko hitzarmena onartu zen

Ohiko Udalbatzarra izan zen asteartean. Gai ezberdinak izan ziren mahai gainean eta hainbat eztabaida sortu ziren alderdien artean.



TXINTXARRI

Lehenik, 2017ko aurrekontuetan herritarren parte-hartzea garatu eta indartzeko mozioa onartu zen EHBildu, PSE eta Lasarte-Oria Ahal du alderdien bozkekin. PPK aurka egin zuen eta EAJ abstentitu zen.

2017an, parte-hartze prozesu bidez herritarrek aukeratutako proiektuetarako 500.000 euroko aurrekontua finkatuko da.

PPk, EAJk eta EHBilduk hainbat kezka aurkeztu zituzten gai honi buruz. Horien artean, guztiak bat etorri ziren, parte-hartze prozesuari eta honen gardentasunari dagokionean, “ez baitago parte-hartze araudirik”.

Jarraian, EAJk diru-laguntzen plan estrategikoari buruz aurkeztutako mozioa aho batez onartu zen, baita PPren eta PSEren emendakinak ere.

2017ko aurrekontuak baino lehen, diru-laguntzen udal plan estrategikoa onartu eta plana eraginkorra izateko, aurrekontuetan dagozkion kontsignazioak ezarriko dira. Era berean, udal araudia eta eskaera orriak onartu eta herriko erakunde edo elkarteekin zenbait urteetarako hitzarmenak egitea eta gardentasuna

bermatze aldera, webean diru-laguntzen informazio guztia eskaintzea adostu zen.

Honetaz gain, garapen lokal, promozio ekonomiko eta enplegu arloan udalen kooperazioaren hitzarmena onartu zen aho batez. Honen bitartez Buruntzaldea eskualdeko herrien arteko elkarlana bultzatuko da arlo honetan.

Eta PSE eta EAJren aldeko bozkei esker, batzorde horretako udal ordezkariak izendatu ziren: Jesus Zaballos eta Estitxu Alkorta. Ordezkoak Beatriz Juez eta Jon Antxordoki izango dira. Beste alderdiek abstentziora jo zuten.

Bidegorria eta Zabaleta Berri

Bidegorri sareari buruzko mozioa aurkeztu zuen EHBilduk eta LOAD, EHBildu eta EAJren bozkei esker onartu zen.

Honen bitartez, Udalari herrian dauden hutsuneak gainditzeko, proiektu bat egitea eta Gipuzkoako Foru Aldundiari Lasarte-Oria beste udalerriekin lotzeko bidegorrien proiektuak aurrera eramatea eskatzen da.

Eztabaida izan zen gai honetan, PSEk ordezkio mozio bat aurkeztu baitzuen. PSEk azaltzen zuenez, EHBilduk aurkeztutako mozioa martxoan

EAJk aurkeztu eta Udalbatzarrak onartutako mozioaren antzeko zen, “EHBildurena eztabaidatzea ez da zentzuzkoa”. Horregatik, alderdi sozialistak ordezkio mozioan Lasarte-Oriako plan estrategikoa egitea proposatzen zuen. Mozio hau ez zen eztabaidatu, EHBildurena aurrera ateratu baitzen.

Honetaz gain, Zabaleta Berriko proiektuari Urrela Grupok egindako bi alegazio atzera bota ziren. Bi kasuetan EAJk abstentziora jo zuen, hitzarmen horrek 2007tik hainbat moldaketa jaso dituelako eta enpresak ez duelako zintzo jokatu, “beldur gara proiektua betek den edo ez”.

Honekin lotuta, Zabaleta Berri enpresarekin hitzarmen berria onartu zen, baita Plan partzialaren aldaketa bat ere. EHBilduk hitzarmen berriaren aurka bozkatu ostean, etxebizitza politikaren planifikazio eza eta landa eremuan eman den ‘zementifikazioa’ salatu zuen.

Hizkuntza-eskakizunak

Azkenik, bi udal lan posturen eskaintzen hizkuntza-eskakizunak aztertu ziren.

Udaltzainen kabo postuaren kasuan atzera bota zen

proposamena PP eta PSEk aurka eta LOADk abstentziora egin eta gero. Honek PSE eta EAJren eztabaida sortu zuen. Gobernu paktuan euskararekin zer ikusia zuten gaiek oniritzia jasoko zutela adostu baitzuten. PSEk erantzun zuenez, adostutako Euskara batzordeko gaiei bakarrik aplikatu behar zaie.

Departamentu arteko administrazio elektroniko eta gardentasun kudeatzaile eta HAZ arduradunaren hizkuntza-eskakizun profilak, berriz, aurrera egin zuen PSE, EHBildu eta EAJren bozkekin.

Zumaburuko eraikina

Azkenik alderdien galdera eta erreguen txanda izan zen. Nabarmenezkoa EHBilduk Zumaburu ikastetxeko eraikinaren egoerari eta horren konponbideari buruz egindako galdera. “Txostenaren arabera, eraikitze arazoa dago. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak egin behar du obra, baina onartuko du?”.

Alkateak azaldutakoaren arabera, hezkuntza ordezkariak bidali zaio txostena, baina honek ez dauka horrelako obra baimenik emateko eskumenik. Beraz, Lakuatik eman behar dute baiezkotza eta proiektua egin. Bilerak eskatuko dute arazo hau eta Landaberriko Guraso elkarteak Institutu eta Landaberri BHIri buruzko kezka bat eramateko. Aurrera pausorik egonez gero, Zumaburu-Sasoeta ikastetxe eta guraso elkarteak jakinaraziko zaiela aurreratu zuten.

GAZTEKLUBA

Eguberrietako haur parkera irteera

Abenduaren 28an etxean ez aspertzeko plana antolatuko du Gaztekluba. LH3 eta LH6 maila arteko gaztetxoek BECen antolatuko den Eguberrietako haur parkeaz gozatu dezakete.

Autobusa goizeko 9:30ean aterako da Biyak Bat elkarte aurreko geltokitik eta 18:30ean iritsiko da Lasarte-Oriara.

Egun osoko irteera izaki, haurrek bazkaria eta merienda eramane behar dutela gogoratzen dute antolatzaileek.

Izena ematea Ttakun elkartearen, aisia@ttakun.eus helbide elektronikoan edo 943 371 448 zenbakian egin daiteke.

Irteeraren prezioa 27 eurotako da eta Ttakuneko bazkideek 24 euro ordainduko dituzte.

Ordainketa plaza baieztatu ostean egin behar da. Hau metalikoz, txartelarekin edo tranferentzia bidez egin daiteke Kutxabankeko honako zenbakian: 2095 5048 18 1061552351.

AMARAUN KLUBA

'Gure familia!' ipuin kontaketa

Amaraun Klubeko txikiek astelehenean, abenduaren 19an, 17:30etik 18:30era 'Gure familia!' ipuin kontaketa saio izango dute Villa Mirentxun.

Familia mota aniztasuna lantzea du helburu ipuin sorta honek. Ipuinaz gain, asmakizunak, poesiak eta abestiak ere ikasten dituzte dagokion gaian sakontzeko.

Izena ematea Ttakun elkartearen, aisia@ttakun.eus helbide elektronikoan edo 943 371 448 zenbakian egin daiteke.

Elkartasuna eta musika Fabrimusikalean

Fabrimusikalaz gozatzeko aukera izango da berriro ere, larunbatean. Autogestioa oinarri duen jaialdian musika izango da nagusi baina hitzak eta umoreak ere izango dute bere tarteak. Azken urteetan bezala, Elebeltz Topagunean 11:30ean hasiko da jaia.

Egitaraua

Antolatzaileek azaldu modura, egun osoko egitarau “xume baina anitza” izango da.

Taldeei dagokienez, Euskal Herriko txoko desberdinetatik datozela azpimarratu dute.

Jaialdiari hasiera emateko ‘Kalera Kalera!’ hitzaldia eskainiko dute Lasarte-Oriako euskal preso ohiek.

Bazkal aurrean, brindisa eta



‘Skifire’ taldearen emanaldia izango da.

14:30ean, bazkari gozoa dastatu ahaliko da. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, bazkarirako txartelak ilargi eta Furia Beltza tabernatan daude salgai.

18:00etatik aurrera, umoreak hartuko du oholatza, Jon Martinez ‘Txiki’ren eskutik. Ostean, ‘Bi Zaldi’ eta ‘Pangea’

taldeen kontzertuak izango dira.

19:00etatik aurrera, jaialdian doazenez salda eta txokolatzeko krepeak gozatu ahaliko dute.

Jaialdiari amaiera emateko, 23:00etatik aurrera, ‘Buuzbu’ eta ‘Zezenaren taldea’-ren doinuak entzungo dira Elebeltzen eta gaua ordu txikiak arte luzatu nahi dutenek, ‘More

Jaia’djen eskutik egin ahaliko dute.

Elkartasuna eta eskertza

Antolatzaileek nabarmen izan dutenez, aurreko urtearen bat dakar Fabrimusikalak. “Musikaz gain, Kalera Kalera! dinamikarekin elkarlanean, ekimen honen baitako hitzaldiaz gozatzeko aukera izango da”.

Honetaz gain, eskertza ekitalditxo bat ere egingo dute. “Azken 15 urte hauetan Multimusikalaren eta Fabrimusikalaren parte izan diren eta bertan lan egin duten orori bazkal aurretik egingo den Brindix-era gonbita luzatzen diegu. Izan ere, gure esker ona erakutsi nahi diegu egindako lan guztiagatik”.

GURE ESKU DAGO

Urteberriko saria

Gure Esku Dago ekimenak Urteberriko Saria eskuratzeko boletoak jarri ditu salgai. Herriko hainbat tabernatan daude txartelak bost euroan eta San Tomas egunez, taldeak jarriko duen mahaian ere eskuratu ahal izango dira. Errifa-loteriak 40.000 euro partitukoditusariez bedinetan; lehengo boleto sarituak 30.000 euro eskuratu dituzte eta halaber, 1.000 euroko 10 sari ere izango dira. Sarituak urtarilaren 16aren ondoren jakinarazi eta sari banaketa otsailaren 18an izango da Beasaingo Igartz Jauregian.

Ibon Fernandezek espetxean segiko du

Parisko Zigorren Aplikazio Ganberak ez du onartu herritarraren zigor-etete eskaera

Ibon Fernandez Iradi herritarraren zigorra eteteko eskaera atzera bota du Parisko Zigorren Aplikazio Ganberak. Frantziako Estatuko espetxeetan larriki gaixo dagoen euskal preso bakarra da; 2013an esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten.

TXINTXARRI

Ibon Fernandez Iradi herritarra aske uzteko eskaeraren aurka egin du Parisko Zigorren Aplikazio Gorteak. Hortaz, herritarrak Frantziako Lannemezan espetxean jarraitu beharko du, esklerosi anizkoitza daukan arren. Frantziako estatuko kartzeletan larriki gaixo dagoen euskal preso bakarra da. 2013an diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza; 2010ean hasi zen lehen sintomak pairatzen.

Atzo eman zuen arestian aipatutako gorte horrek epaiaren berri. Ibonen abokatuek jaso zuten jakinarazpena, baina ez zigorraren eskaera ez eteteko deliberoaren arrazoiak zeintzuk ziren.

Berria egunkariak jakitera eman zuenez, epaitegiak aldean txostenak aztertu ditu, medikuenak ere bai, eta azken erabakia hartu aurretik, herritarrak esateko zuena ere entzun zuen. Erabakia, esan bezala, zigorra etetearen aurkakoa izan da.



Larriki gaixo dauden euskal presoekiko elkartasun ekitaldia antolatu zuen Lasarte-Oriako Sarek azaroan.

Aurrekariak

Azaroaren 24an bi ordu eta erdiko bilera egin zuen Parisko Zigorren Aplikazio Gorteak, eta jakinarazi atzo emango zuela erabakia. Azaroko saio hartan zigorra etetearen aurka egin zuen prokuradoreak. Hori baino lehen, 2015eko maiatzaren 7an hain justu, Frantziako Dei Auzitegiak ebatzi zuen bateragarriak zirela Ibonen eritasun larria eta espetxean jarraitzea. Erabaki horren aurkako helegitea jarri zuen herritarrak maiatzaren 12an Kasazio Gortearen aurrean.

Kasazio Gorteak berak atzera bota zuen Dei Auzitegiaren deliberoa, "ondorioztatu zuelako ez zirela betetzen Ibonen gaixotasun larria eta espetxealdia bateragarriak izateko beharrezko baldintzak", herritarraren abokatu Maritxu Paulusek azaroan kultur etxean egin-dako mahai-inguruan jakitera eman zuenez.

Herritarrak 2014. urtean eskatu zuen lehenengoz zigorra etetea, Kouchner legegaren pean (epaileak izendatutako espezialista desberdinek ebaztea ea presoak pairatzen

duen gaixotasuna bateragarria den espetxean egotearekin ala ez). 2003ko urtarrilaren 4an atxilotu zuten Ibon, eta 30 urteko zigorra ezarri.

Elkarretaratze berezia atzo

Ebazpenaren aurkako erreakzio ugari eman ziren atzo arratsaldean. Besteak beste, hainbat herritar bertatu ziren Lasarte-Oriako Sarek deitutako elkarretaratze berezira. Iluntzeko 20:00etan hasi zen ekitaldia; plazara gerturatutakoek salatu zuten Ibon Fernandez Iradi aske ez uzteko erabakia.

BIDAIAK TALDEAN Lasarte-Oriatik NOAOA BIDAIAK-EN LAGUNDUTA

MENDEBALDEKO KOSTALDEA AEB

HIRIBURU BALTIKOAK ITSAS BIDAIA

POLONIA

MAIATZA LAS VEGAS

UZTAILA

ABUZTUA

Inteerak 2017

NOAOA BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

ARMAIRUAREN ZIRRIKITUTIK

"Lasarte-Oriako euskalgintza 1966-2016"

ESTRENALDIA

Abenduaren 23an, 19:30ean,
Manuel Lekuona kulturetxean.
Sarrera doan

LASARTE-ORIA

bihotzetik plazara



Gitarra eta ahotsaz gozatzeko asteburua

Gabonetako giroan murgilduko da gaur arratsaldean eta igande eguerdian Ama Brigitarren komentua, Danok Kide eta Alboka Abesbatzak antolatu dituzten kontzertuei esker.

Gaur, Danok Kide elkarteak antolatutako XII. Musika topaketen hitzordu berria dago, 19:30etik aurrera.

Francisco Escudero kontserbatorioko gitarra taldeak eta Luberrri abesbatzak nazioarteko

gabon kantetan zein doinu klasikoetan oinarritutako egitaraua aurkeztuko dute.

Xabier Lasak zuzendutako gitarra taldea izango da lehena; Junkal Guerreroren zuzendaritzapean Luberrri abesbatzaren ahotsak girotuko dute ostean kapera eta azkenik, bi taldeek batera hainbat abesti eskainiko dituzte.

Ahotsa nagusi

Igandean, berriz, 12:30etik aurrera, ahotsa izango da

nagusi Alboka eta Aldapeta abesbatzen emeraldian.

Abesbatza bakoitzak seina gabon abesti kantatu eta amaieran, 'Ator-Ator' abestuko dute elkarrekin.

Bi abesbatzez gain, Albokak Semblante Rocieroko musikoen laguntza izango du eskainiko duen kantuetako batean.

Danok Kide elkarteak eta Alboka abesbatzak herritarrak gonbidatzen dituzte emeraldietara hurbildu eta musikaz gozatzera.



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztiko, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamina.

hazi
LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

LABURRAK.-

Ostadar Antonio Aroztegiaren porrota Araiaiko Zalditxo taldearen aurka (7-4)

3. Nazional mailako Ostadar Antonio Aroztegiak ezin izan zuen punturik bildu Araiaiko Zalditxoren aurka jokaturako neurketan; 7-4 galdu zuten urdin-beltzek. Lehenengo zatian ederki hasi zen Josean Jimenezek zuzendutako taldea, Asier Perezek 0-1ekoa sartu baitzuen. Gero, ordea, hiru akats larri egin eta etxeko taldeak hiru gol sartu zituen. Atsedenaldira 3-2koarekin iritsi ziren, Asierrek beste gol bat eskuratu baitzuen. Egoerari buelta emateko 30 minutu zeuzkaten.

Ez zuten lortu, ordea. 40. minuturako 5-2 ari ziren galtzen. Une horretan atezain jokalaria atera eta bi gol sartu zituen Ostadarrek, baina Zalditxok ere beste bi. Azkenean, 7-4.



Udalaren kirol instalazioen alokairua

Kirol guneko pilotalekua, tenis pistak, pista balioaniztuna eta Kiroldegiko padel pistak. Horiek izango dira herritarrek 2017. urtean zehar (uztailean eta abuztuan salbu) alokatu ahalko dituzten udal kirol instalazioak. Hori egiteko, Kirolen Udal Zerbitzuak alokairu eskaera egun eta ordu jakin batzuetan egin ahal izateko aukera emango die lasarteoriarrei.

Alokatzeko eskainiko diren orduak edota erabiliko diren arauak zeintzuk diren ezagutu nahi dituztenek, erabili nahi duten instalazio horren gunera joan beharko dute informazio eske. Instalazioen bat erreserbatzeko asmoa daukaten erabiltzaileek eskaera egin beharko dute Udal Kiroldegiko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

Gimnasia erritmikoa egiteko kanpua Eguberrietan

Ekimen interesgarria antolatu du LOKEko gimnasia erritmiko alorrek Eguberrietarako. Kanpus bat prestatu du, bi txandatan egingo dena, Udal Kiroldegian, 09:00etatik 13:00era: lehenengo, abenduaren 26tik 30era bitartean, eta, bigarrena, urtarrilaren 2tik 6ra. Zazpi urtetik aurrera dituzten gaztetxoek ahalko dute izena eman. Txanda batean izena emateak 60 euro balio ditu; bietan, 100. Kiroldegiko bazkide ez direnek txanda bakoitzeko 15 euro gehiago ordaindu beharko dituzte.

Antolatzaileek gogorarazten dute ezinbestekoa dela kanpusera gizarte segurantzako liburuxkaren fotokopia edo balio bera duen beste dokumenturen bat eramatea. Informazio gehiago nahi duenak Ritmica.campus@gmail.com helbidera idatzi edo 671 073 889 zein 650 032 909 telefonoetara deitu dezake.

KIROLA.-

“Aurrera jarraituko dugu”

Atsobakarreko kirol egitasmoa moldatu du Lasarte-Oriako Udalak

400 metroko atletismo-eraztuna eta futboleko zein errugbian aritzeko zelaia. Kirol instalazio horiek eraikitze asmoa berretsi du Udalak, moldaketekin: Usurbilek erabaki du bere lursail zatia ez uztea, eta, hortaz, harmailik gabekoa izango litzateke instalazioa.



Txus Alonso Kirol burua, Jesus Zaballos alkatea eta Agustin Valdivia Hirigintza burua.

TXINTXARRI

Udalak agerraldia egin zuen asteazken goizean, Atsobakarren eraiki gura duen kirol instalazioen egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoa daukala jakinarazteko. “400 metroko atletismo-eraztun bat eta futboleko zein errugbian aritzeko zelai bat eraikitzea da asmoa, aldagela eta materiala gordetzeko etxola batekin. Hasierako proiektuan harmailak egitea ere aurreikusten genuen, baina Usurbilek bere lursaila uzteko asmorik ez duenez, moldaketak egin behar izan ditugu eta herren jaioko da”, adierazi zuen Jesus Zaballos alkatea. “Aurki lizitatuko da proiektua”, aurreratu zuen.

“Usurbilgo Udalaren jarre- atsekabetu egin gaitu, ez baitu batere lagundu lasarte- o-

riatarrentzat funtsezkoa eta usurbildarrentzat erabilgarria izan daitekeen instalazioak eraikitzean; obrak egin bitartean oztoporik jarriko balu, Buruntzaldeako kirol hitzarmena salatu eta bertatik aterako ginateke”, jakinarazi zuen.

Halere, Udalak ez dizkio “ateak ixten” akordioari, agerraldian alkateak nabarmendu zuenez: “Espero dugu Usurbilek bere jarrera birplanteatzea, harmailak eraiki eta zelaia lehiaketa ofizialak jokatu ahal izateko erabiltzeko”.

Lasarte-Oriako Udalak bi lursail ditu: 7.875 metro koadrokoa bat eta 12.216koa bestea. Usurbilenak 5.551 ditu. Bi eremu horiek herriaren jabetzakoak izan arren, Usurbilgo udal barrutikoak dira. Hortaz, azken horrek eman beharko litzuzke obra lizentziak. “Azaroko udalbatzarrean jakinarazi

zutenez, gure eremuetan prozedura urbanistikoa ekiteari ez diote jarriko trabarik formak eta arauak betetzen badira, baina lizentziak emateak luzerako jo dezake”, zehaztu zuen alkatea.

Kiroldegi berria egiteko asmoa ere badauka Udalak, baina zehaztu du Atsobakarreko lanak bukatuta egon arte ez liratekeela horiekin hasiko.

Kirol merituei aitortza

Aizpea Arroyo gimnastak, Jon Ander Puertas errugbi jokalaria eta Txema Indias Leganes taldeko kirol zuzendariak jasoko dituzte 2016ko kirol merituei aitortzak. Ekitaldia bihar izango da, 11:00etan, Udalbatzar aretoan.

Herritarrek eta kirol elkar- teek hartu dute parte hautaketa prozesuan. Azaroaren 30ean onartu zituen hautagaiak Kirol Komisioak, ezohiko saioan.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 17
Michelin, 15:45ean
Ostadar SKT - Hernani CD
Kadeteen Ohorezko maila,
14. jardunaldia.

Zubieta, Hernani, 16:30ean
Hernani CD - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila,
15. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean
Texas Lasartearra - Vasconia
Erregionalen 1go maila,
14. jardunaldia.

Fanderia, Orereta, 17:30ean
Touring KE - Ostadar SKT
Emakumezkoen Lurralde maila,
13. jardunaldia.

Herrera, Donostia, 17:30ean
Sporting Herrera - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko maila,
14. jardunaldia.

Igandea 18
Altamira, Ordizia, 16:00etan
Ordizia KE - Ostadar SKT
Erregionalen 1go maila, 14. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Mosso kopa, A eta B multzoetako norgehiagokak

Ostirala 16
Kirol gunea, 19:45ean
Trumoi - Kattagorri Insausti
Kirol gunea, 20:45ean
Indaux - Ilargi

Larunbata 17
Kirol gunea, 10:00etan
Aita Amari - Also
Kirol gunea, 11:00etan
Viña del Mar - Izkiña

Kiroldegia, 11:00etan
Kafe Bar Lasarte - Summa Aldapeta
Gipuzkoako jubenilen maila,
9. jardunaldia.

Manteo kiroldegia, Donostia, 12:30ean
Summa Aldapeta - Bar Buenetxea
Gipuzkoako jubenilen maila,
9. jardunaldia.

Kiroldegia, 18:00etan
Ostadar Antonio - San Jorge
3. Nazional maila, 14. jardunaldia.

Allurralde kiroldegia, Andoain, 19:00etan
Euskalduna - ISU Leihoak
Gipuzkoako 1go maila, 12. jardunaldia.

Igandea 18
Kiroldegia, 11:15ean
Cecilia Ostadar - Mondrate CD
Gipuzkoako 1go maila, 12. jardunaldia.

IGERIKETA

Ostirala 16/Igandea 18
Sabadell, asteburu osoan zehar
Buruntzaldea IKTKo igerilari Iñigo Ibarburuk absolutu mailako Espainiako txapelketa jokatu du. 50, 100 eta 200 tximeletan ariko da.

PILOTA

Larunbata 17
Gaska, Donostia, 09:30ean
Intza KE - Hernani
Seniorren Gipuzkoako 2. maila,
trinketa, 2. jardunaldia.

SASKIBALOA

Ostirala 16
Kiroldegia, 20:30ean
Ostadar SKT - Arri BKL
Senior gizonezkoen 3. probintziala,
5. jardunaldia.

Larunbata 17
Kiroldegia, 16:00etan
Ostadar SKT - Mondragon
Errendimenduko junior neskek, A1 liga,
13. jardunaldia.

Don Bosco, Orereta, 20:00etan
Eme Oiarso SKT - Ostadar SKT
Senior emakumezkoen
1go probintziala, 2. fasea,
4. jardunaldia.

Igandea 18
Majori kiroldegia, Ordizia, 09:00etan
Ordizia 2001 - Ostadar SKT
Partizipazioko kadeteak, 8. jardunaldia.

Kiroldegia, 09:30ean
Atletico SS - Ostadar SKT
Errendimenduko junior neskek, A2 liga,
8. jardunaldia.

Benta Berri, Donostia, 12:00etan
Askatuak - Ostadar SKT
Errendimenduko kadete neskek, A1 liga,
13. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 17
Asti, Zarautz, 16:00etan
Babyauto Zarautz - Uribealdea
Ohorezko B maila, 12. jardunaldia.

Igandea 18
Michelin, 10:15ean
10 eta 12 urtez azpiko topaketak.
10:00etan, Aitor Urangari omenaldia.

— Agenda —

Larunbata, egun osoa, Lasarte-Oria



Denon gustuko ekintzak

Esna Hadi elkarteak, hainbat eragileek eta ostalariek II. Kalera Fest antolatu dute Udalaren laguntzaz. Haur, gazte, zein helduei zuzendutako ekintzak egongo dira egun osoan zehar.

LANDABERRI BHI

10:00etan, areto-futbol partidak 8 eta 11 urte arteko gaztetxoentzat.

OKENDO PLAZA

11:30ean, Elkarlan jolasak, 6 eta 12 urte arteko haurrei zuzenduak.

12:00etan, Patinaje tailerra.

12:00etan, Zumba tailerra.

17:00etan, Crossfit erakustaldia.

SAGARDOTEGI KALEA - INMA ONEKA

11:00etan, umeentzako mural margoketa.

18:00etatik aurrera, kontzertuak: 'Reggae Sound System', 'Turning Point Sound

System', 'Meets' eta 'High Am I Sistema'.

HERRIKO HAINBAT TABERNA

13:00etatik aurrera, batukadak eta txarangak girotutako pintxo potea.

TRINKETEA

18:00etan, Dardo lehiaketa.

JAIZKIBEL PLAZA - CEREZO

17:00etan, umeentzako jolasak.

18:00etatik aurrera, kontzertuak: Karpovian eta PJ Kajuna.

LANDABERRI BHI AURREA - FORJA

18:00etatik aurrera, kontzertuak:

'Korkones', 'Yakolev', 'WE' eta 'NX'.

KALE NAGUSIA - GORRI

18:00etatik aurrera, kontzertuak: ARKUPE PAREAN

'Desembragadores' eta 'Zaparra' ILARGI PAREAN

'Bar Remigio', 'Txili Pipar', eta 'Paketes for the China chain'.

HERRIKO KALEAK

23:00etatik aurrera, elektro-txaranga.

ABEND TABERNA

00:00etan, 'Ever level' taldea.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

Okendo Zinema taldeak 'Snowden' filma aztertuko du. Jatorrizko bertsioa azpтитuluekin. Sarrera, 5,50 euro.



Igandea, 17:00etan

Haurren zinema saioan, Disneyren animaziozko film berria 'Vaiana' izango da ikusgai. Sarrera, 3,80 euro.

Igandea, 19:30ean

Helduen zinema saioan, 'La Llegada' filma izango da ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Ostirala, 19:30ean

Francisco Escudero kontserbatorioko gitarren eta Luberri abesbatzaren emanaldiaz gozatu ahalko da.

Igandea, 12:30ean

Alboka Abesbatzak eta Aldapeta Abesbatzak Gabon abestietan oinarritutako emanaldia eskainiko dute.

Fabrimusikala

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Larunbata

11:30ean, 'Kalera Kalera!' hitzaldia.

13:30ean, 'Skifire'.

14:30ean, bazkaria.

18:00etatik aurrera, Jon Martinez 'Txiki'ren emanaldia, 'Bi Zaldi' eta 'Pangea'.

23:00etatik aurrera, 'Buuzbu', 'Zezenaren taldea' eta 'More Jaia' djak.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 20:00etan

Cielo Raso konpainiak 'Tormenta' lana eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 19, 18:00etan

Pello Añorgak 4 eta 5 urteko haurrentzako ipuinaren ordua eskainiko du.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 19, 19:00etan

'Azpiegitura handien interes

ekonomikoak' hitzaldia eskainiko da. Igor Meltxor eta Ainhoa Intxaurrendieta izango dira hizlariak.

Irakurle Txokoa

TTAKUNENEA

Asteartea 20, 18:30ean

Irakurle Txokoko kideek Harkaitz Canoren 'Beti oporretan' lana aztertuko dute

Andoain

Mahai-ingurua

BASTERO KULTURGUNEA

Asteartea, 10:30ean

'Ekonomia Gurean' mahai-ingurua egoingo da. Bertan Orkestrako kide bat,Mendi Group enpresako kide bat eta sagardo ekoizle izango dira hizlari. Moderatzaile lanetan Urko Aristi izango da.

— Herritarren txokoa —

Eskutitza

Bidegorri-sarea geldirik dagoela ezkutatu ezin duen argazki bat

Luzuriaga eta Lasarte-Oria bitartean pendiente geratzen zen bidegorri-zatiaren inaugurazioa zela eta, argazki bat atera zioten Marisol Garmendia Mugikortasuneko diputatuari, bizikletan ari zela, Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkaterarekin batera. Garmendiak aukera aprobe txatu zuen datorren urtean zati berri txiki bat egingo dutela iragartzeko eta, oro har, haren departamentuak bizikletaren erabileraren alde egiten dituen ahaleginak publizitzatzeko. Alabaina, argazkiak nahiz hitzek ezin dute ezkutatu bidegorri-sarea ia zeharo geldirik dagoela, Foru Aldundiak horretarako aurrekontuak izugarri murriztea erabaki duelako.

2013an, Batzar Nagusietako talde guztiek aho batez onartu zuten Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala. Horren arabera, zortzi urtetan, urtero 14,5 milioi euro inbertituta, oinarritzko bidegorri-sarea osatu behar zen Gipuzkoan. Baina

2016an inbertsioa 2,3 milioikoa baino ez da izan; eta 2017ri begira aurreikusitakoa, berriz, are txikiagoa da: 1,8 milioikoa. Kalkulua buruz ere lasai asko egin daiteke: horrela jarraituz gero, 8 urte ez, 50etik gora beharko dira "oinarritzko" sarea osatzeko. Sare horri dagozkio gure inguruan pendiente dauden Errekalde-Usurbil, Lore Toki-Hernani eta Lasarte-Andoain bidegorri-proiektuak (gogoan izan aipatutako azkenak, Plazaolakoak, urteak daramatzala bernagorri edo txanpinoien tunelean blokeatuta).

Garbi dago kasu honetan zenbakiak askoz adierazgarriagoak direla hitzak baino, baita argazki bat baino, bizikletan ateratako argazkia bada ere.

EGUZKI

Fabrimusikalaren Habanera

Iritzia emateko darabilkit habanera zerbait adierazi nahian ta beste modu batera larunbat hontan baduzu festaz janzteko aukera Usurbilen egingo den Kaos ta lentejas bera presoekin elkartasuna horra Kalera Kalera! ta Fabrimusikalean kontzertuez gozatzer a anteojuak egoki enfokatzeaz batera ageri da bizi dela aske izateko jarrera!

Beste zerbait bada omen ez guztiz ezezaguna urtetan hemen izan zen Multimusikal eguna herriko musikazale ta ostatuen laguna aurt en hamabostgarrena aise kunplittua duna hainbeste exijentzi ta traba bizi izan zuna

udaletxeak ez baitzun sentitzen zerbait kuttuna ta aurtengon bigarrenez eman die erantzuna ez zela horren okerra gazte horien jarduna!

Anteojuei berriro erreparatzearekin bakoitzak bereak ditu helburu edo etekin gu beti saiatzen gera autogestioarekin urtetan egin ditugun lagun ta harremanekin baina egun berdinean berdina sortzearekin hainbeste eskatzen zuen Udalan laguntzarekin bertso hauek idaztea gaurkon besterikan ezin zuk erabaki gau hortan parranda norekin egin!

Fabrimusikala

Euskalgintzaren ibilbidea

50 urteko ibilbidea dokumentalean jasota

Armairuaren zirrikitutik, 'Lasarte-Oriako euskalgintza 1966-2016' dokumentala Manuel Lekuonan ikusi ahal izango da abenduaren 23an 19:30ean. 60. hamarkadan euskara herrian biziberritzeko kezka piztu zenetik hona herriko euskalgintzak egindako ibilbidea jaso da.

TXINTXARRI

Euskararen 9. Maratoian ikusi ahal izan zen dokumentalaren zatitxo bat eta abenduaren 23an izango da aukera oso osorik ikusteko 19:30ean Manuel Lekuonan egingo den

estreinaldian. Armairuaren zirrikitutik 'Lasarte-Oriako euskalgintza 1966-2016' lanaz gozatu ahalko dute herritarrek sarrera doan izango da eta.

Urteurrenak batu

Herrian euskalgintzako

eragile ezberdinentzat urteurren urtea izan da 2016a. Hau dela eta, ideia sortu zen Udaleko Euskara Batzordean denen historia bideo batean bateratzeko.

Horrela izanda, herritar talde bat batu eta 50 urteko historia jasotzeko gidoia landu dute. Ikastolaren sorrera, gau eskolak, ikastetxe publikoetan euskararen sarrera, euskara taldearen lehen urratsak, udalaren Euskara Batzordearen sorrera eta bilakaera edota Ttakun elkartearen ibilbidea dira



Ikastolako lehenengo belaunaldiko kideak bildu ditu dokumentalak besteak beste.

dokumentalaren ardatz nagusiak. Hauen barruan berriz, Maratoia eta bestelako ekimenak ere hartu dira kontuan.

Euskara Lasarte-Orian

biziberritzeko egindako lana jasotzen da. 60.hamarkadatik aurrera gurean egin zirenak kontatzen dituzte eragile horien sorreran lanean aritu ziren herritarrak.





943 841 972

20 urte baino gehiagoko esperientzia

- ✓ Higienea bermatua
- ✓ Haurrekin ere esperientzia
- ✓ Bizarra moztea eta kentzea
- ✓ Ilea moztea labanez, guraizez edo makinaz

Berria!

Beko kale 4 (Andre Joakina-Enea ondoan), Lasarte-Oria • 943 841 972

Abenduaren 9tik 30era LASARTE-ORIAN EROSI ETA LORTU ZURE SORTA

**ORBELA EKODENDA • LIZARRI OPTIKA • ARKUPE TABERNA • MAYA LENTZERIA • AMALUR LOKUTORIOA
IZARRA BITXITEGIA • DONNA BOUTIQUE • CARREFOUR EXPRESS • ABREU BAZARRA
ARREGUI ELEKTRIZITATEA • ANDATZA TABERNA • KATTAGORRI JOLAS DENDA • MAY ILE-APAINDEGIA
ISU LEIHOAK • URRUZOLA MERTZERIA • OLMÍ MERTZERIA • BIDEO LAGUNAK • SUKOA BURDINDEGIA
VIÑA DEL MAR KAFETEGIA • YOLANDA TABERNA • NOGUES JANTZIGINTZA • JOSEMA BURDINDEGI
SARRAILA-DENDA • ALCAR LEIHOAK • ALBA MODA • BUENETXEA KAFETEGIA • SANTANA INFORMATIKA
LASARTE TABERNA • ORMAZABAL LOREDENDA • ITURBE ZAPATA-DENDA**

